

Hekimen 2021-25

Batzarrean aurkezteko dokumentua

Plangintza estrategikoa



Baliabideak handitzea (Lobby)

<u>Lan ildoa</u>	<u>Helburua</u>	<u>Ekintza</u>	<u>Adierazlea</u>	<u>Urtea</u>
<u>Baliabideak handitzea</u>	<u>EAEko instituzio nagusiak</u>	<u>EAEko instituzio nagusiekin lortutako akordioa hobetzeko eragin lana bereziki, telebisten, Irratien eta hedabide espezializatuen alorrean dauden hutsuneak edo hobetu beharrekoak kontuan hartuak izan daitezen eragitea.</u>	<u>Sektoreak proposatzen duenaren %80 onartua izatea.</u>	2021
		<u>Berrikuntza garatu ahal izateko akordioa lortzeko eragin lana, proiektu berriak eta jada egiten diren berrikuntza ildoak diruz lagunduak izan daitezen.</u>	<u>3 berrikuntza proiektu garatzeko beharrezko baliabideen %50 lortzea.</u> <u>Gaur egungo hedabideen berrikuntza sustatzeko laguntza lerroa sortzea, poltsa orokorraren %10</u>	2021-23
	<u>Nafarroako administrazioa</u>	<u>1.- Sektorearen mahaia osatzeko eragin lana.</u>	<u>Euskal hedabide guztiak ordezkatzuz "hedabideen mahaia" osatzea</u>	2021
		<u>2.- Hiru urterako akordioa lortzea sektorea egonkortzeko eta euskarazko hedabideen beharrak oinarri hartuta.</u>	<u>Bazkideen gehiengoak onartutako akordioa indarrean jartzea.</u>	2022
		<u>3.- Telebisten kasuan euskarazko hedabidea izateagatik dagokion laguntza lortzea ekoizpena sustatzeko laguntzei gehituz.</u>	<u>Euskarazko telebistentzako laguntza lerroa irekitzea.</u>	2022
	<u>Espainiako administrazioa</u>	<u>1.- Espainiako administrazioak gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen duten hedabideak laguntzeko biderik ote dagoen aztertzea.</u> <u>2.- 5G sistemaren hedapen asmoak ezagutzea.</u> <u>3.- Ikusentzunezkoen lege berria aztertzea eta hobetzeko eragitea.</u>	<u>Azterketa lana bazkideei aurkeztea.</u> <u>Hedapen asmoak bazkideei jakinaraztea.</u> <u>Legea hobetzeko ekarpena egitea eta proposatutakoaren %20 onartua izatea.</u>	2021-23

	<u>Frantziako administrazioa</u>	<u>“Euskal hedabideak” elkartearen ekarpena.</u>		
	<u>Europako administrazioa</u>	<u>Europako administrazioaren eskutik etor daitezkeen laguntza aukeren azterketa egitea.</u>	<u>Laguntza aukerak eta haien ezaugarriak biltzen dituen dokumentua bazkideei aurkeztea.</u>	2022-23
	<u>Udalbiltza</u>	<u>Instituzioarekiko harremanak estutzea eta lankidetzak aukerak aztertzea.</u>	<u>Lankidetzak proiektu bat abian jartzea.</u>	2021-22
	<u>Alderdi politikoak</u>	<u>Alderdi politikoekin harreman errazak edukitzeko zubiak eraikitzea eta alderdiei sektorearen azterketa eta beharrak zein diren jakinaraztea.</u>	<u>Urtean behin gutxienez alderdi nagusiekin biltzea.</u>	2021-23
	<u>Sektore ekonomikoa</u>	<u>Euskal hedabideetan inbertitzeko prest egon daitezkeen sektore ekonomikoekin zubiak eraikitzea.</u>	<u>Gutxienez, bi enpresarekin harremanak edukitzea.</u>	2021-23
	<u>Publizitatea</u>	<u>Publizitate instituzionalaren banaketaren azterketa egitea euskal hedabideek kontzeptu horretan jasotzen dutena zenbat den ezagutzeko eta erdal hedabideek jasotzen dutenarekin alderatu ahal izateko.</u>	<u>Azterketa lana bazkideei aurkeztea.</u>	2021
		<u>Instituzioek banaketa orekatua egin dezaten irizpideak ezartzea, horiek ezagutaraztea eta eztabaidagai jartzea administrazioen aurrean baita, beharrezkoa ikusiko balitz, iritzi publikoan ere.</u>	<u>Bazkideen gehiengoak onartuta, irizpideak biltzen dituen dokumentua lortzea eta euskal hedabideetan argitaratua izatea.</u>	2022
		<u>EAEko administrazio nagusiekiko harremanetan fokua gai horretan jartzea banaketa egokirako akordioa lortzeko helburuz.</u>	<u>Hekimenek aurkeztutako proposamenen %50 onartzea.</u>	2022-23

Sektorearen ezagutza

Lan ildoa	Helburua	Ekintza	Adierazlea	Urtea
Sektorearen ezagutza	Kanpo adierazleen azterketa	Audientzien jarraipena egiteko sistemaren inguruko akordioa lortzea administrazioekin eta hori erabiltzen hastea.	EAEko administrazioekin akordioa lortzea Behategiak egindako ekarpena oinarri hartuta.	2021
		Hekimen analytics neurtzeko tresna baloratu eta beharrezkoa balitz hobetzea.	Hekimen analytics hobetzeko ekarpenak egitea.	2021-22
		Erabiltzaileak hobeki ezagutzeko moduaren inguruan proposamena egitea, erabiltzaile potentzialei lehentasuna emanaz.	Bazkideei proposamena aurkeztea.	2022
	Barne adierazleen azterketa	Datutegian duela bi urte bildutakoa ezagutaraztea eta azterketari 3 urteko maiztasuna ezartzea.	Bazkideei 2019ko datuak ezagutarazi eta haien inguruko irakurketa biltzen duen dokumentua Behategiak aurkeztea.	2021
		Bere garaian egindako datu bilketan oinarrituz sektorearen genero azterketa egitea.	Bazkideei generoaren ikuspuntutik sektorea nola dagoen aztertzen duen dokumentua Behategiak aurkeztea zer hobetu balego proposamenak eginez.	2021
	Barne komunikazioa	Sektoreko langileei zuzendutako boletina sortzea urtean hiru aldiz gutxienez digitalki banatua izango dena. Telegram kanala sortzea sektoreko langileentzat interesekoak diren gaiak komunikatzeko.	Boletinarekin eta telegram kanalarekin gutxienez, 100 langilerengana iristea.	2021-23

	<u>Kanpo komunikazioa</u>	Sare sozialetan Hekimenek duen presentzia kalitatez eta kantitatez handitzea sektorearentzat erreferente izateko. Webgunea berritzea ezaugarritze berriari hobeki egokitzeko. Behategiaren eskutik urtekaria aurkeztea. Hekimenen urteko ekintzak hobeki komunikatzeko plangintza egitea. Batzarrak, gogoeta saioak eta abar.	Sare sozialetan une honetan dauden jarraitzaileak % 50 handitzea Webgunearen bisita kopurua %25 handitzea. Urtekariaren edukiak ezagutarazteko hiru komunikazio saio egitea. Hekimenen jarduna komunikatzeko 3 saio urtean.	2021-23
	<u>Antena teknologikoa</u>	Aldaketa teknologikoa eta haren eragina eta aukerak zein izango diren aurreikusteko lana egitea. Urtean zehar hedabideei eragingo dieten aldaketa teknologikoei buruz hausnartzeko goiz bateko 2 saio egitea.	Saio bakoitzean 20 langilek parte hartzea.	2022-23
	<u>Gogoeta etengabea</u>	Gogoeta estrategiko etengabea egiten lagunduko digun diziiplina-arteko lantaldea osatzea aholkulari gisa.	7 laguneko lantaldea osatzea. Urtean behin gutxienez gogoeta estrategikoa eragiten duen dokumentu bat bazkideei aurkeztea.	2021-23
	<u>Formakuntza</u>	Formakuntza beharrak zein diren ezagutzeko inkesta egitea.	Inkestaren emaitza bazkideei aurkeztea.	2021
		Hedabideek aurreikusitako formakuntza saioen berri biltzen duen agenda sortzea beste hedabide batzuk aukerak baliatzeko hala badagokio. Agenda bestalde, formakuntzan sektoreak dituen hutsuneak ezagutzeko ere balioko du.	Formakuntza agenda sortzea bazkideen %60aren ekarpenez. Lehentasunen arabera gutxienez urtean behin formakuntza saio bat egitea.	2021-23

Ekintza bateratua

<u>Lan ildo</u>	<u>Helburua</u>	<u>Ekintza</u>	<u>Adierazlea</u>	<u>Urtea</u>
<u>Ekintza bateratua</u>	<u>Elkarlana</u>	<u>Hekimeneko bazkide bat baino gehiago barnebiltzen dituen proiektu bat sortzen laguntzea.</u>	<u>Proiektuaren egitasmoaren lanketa abiatzea.</u>	2022-23
		<u>EAEn berrikuntza oinarri duen proiektu berria sor dadin eta diruz lagundua izan dadin eragitea.</u>	<u>Proiektuaren egitasmoaren lanketa abiatzea.</u>	2021-22
<u>Plan estrategikoa</u>		<u>Eusmeroteka abian jartzea, elikatzea eta erabiltzen hastea.</u>	<u>Hekimeneko bazkideen %20k Eusmeroteka erabiltzea.</u>	2021
	<u>Hedapen geografikoa</u>	<u>Bilbon, Iruñerrian, Araban edo Nafarroako hegoaldean euskal hedabideen presentzia areagotzeko proiektuak lantzea sektoreko eragileekin.</u>	<u>Aipaturiko zonaldeetan 2 proiektu adostu edo landu direla bermatzea.</u>	2022-23
	<u>Barne kohesioa</u>	<u>Bazkide berriak erakartzeko lan egitea.</u>	<u>3 bazkide berri lortzea.</u>	2021-23
		<u>Kuotak eguneratzeko eztabaida egitea.</u>	<u>Kuotak eguneratzeko akordioa lortzea.</u>	2021
		<u>Euskal hedabideetako langileen harremanak sendotzeko espazioa sortzea.</u>	<u>Sortutako espazioan gutxienez 50 langilek parte hartzea.</u>	2022-23
		<u>Kode deontologikoa deiturikoa onartzeko proposamena aurkeztea eta haren segimendua egitea.</u>	<u>Kode deontologikoa Euskal Hedabideen mahaian onartzea.</u> <u>Hekimeneko hedabideen artean zabaltzea.</u>	2021